



# BASOAREN GAUEKO OIHARTZUNAREN ULUA: URUBIA



## SARRERA

Otsagabiko ikastetxeko DBH1 ikasleak gara. Biologia eta geologia ikasgaien ornodunen gaia garatzen genuen bitartean, proiektu bat hasi genuen. Proiektu hau gaueko harrapakati baten ingurukoa da, urubia. Bereziki, Otsagabiko herrian bizi diren urubien ingurukoa.



## HELBURUAK:

Urubiak entzuteko eta beraien inguruan gehiago jakiteko, egiten dugu proiektu hau. Urubien kopurua eta Otsagabian duten kokagunea ikertzea dugu helburu.

## KOKALEKUAK


Beheko mapa honetan kokatzen dira urbia ikertzeko erabili ditugun estazioak.

## MATERIALA:

Ondoren zehazten da ikerketa honetan erabili dugun materiala:

- Noctua fitxa, SEO-birdlife elkartearena.
- Boligrafo bat.
- Linterna.
- Bozgoragailua urubiaren soinuarekin (apeuarekin).

- 1: Sarria. Ur-depositoak
- 2: Otsagabiako eliza
- 3: Zatalarrañas
- 4: Kixkia sagardotegia



## PROZEDURA:

Gauaren hasieran, egun horretan zeuden baldintza batzuk jasotzen genituen: data, laino portzentaia eta ilargiaren aldia.

Ondoren estazio bakoitzean ikerketarako behar genuen prozedura martxan jartzen genuen.

Ondorengo prozedura hau egin genuen:

Hasierako eta bukaerako ordua apuntatu.

Zein ekosistema dagoen estazio honetan (basoa, larre.. zein motatakoa).

Bikoteka lan egin genunez, bikote bakoitza leku batera joaten zen. Han 5 minutu egoten zen ixilik, entzuten.

5 minutu eta gero, guztiak berriro elkartu ginen, eta urubia zenbat aldiz entzun genuen fitxan apuntatu.

Urubiaren soinua zuen bozgoragailua jarri genuen, minutu batez.

Hasierako kokagunera itzuli, eta berriz, 5 minutu egon ginen ixilik. Ondoren berriro elkartu ginen, Noctua fitxan apuntatzeko.

Prozedura hau garatu genuen Otsagabiko ur-depositoetan, Otsagabiko elizan eta Zatalarrañasen.

Bigarren gauean estazio berri bat gehitu genuen, aurreko gau batean entzun izan zelako: Kixkia sagardotegia.



## ONDORIOAK:

Iaz urubiak entzun zituzten eta aurten ez ditugu entzun, nahiz eta estazio berdinetan egon garen.

Kontutan izanik aurreko urtean otsailaren azken egunean joan zirela, eta aurten otsailaren hasieran joan garela,

ondorioztatu ahal dugu urubiak otsailaren azken egunetan eta martxoaren hasieran entzuten direla.

Herriko gazte bat, herriko elizan martxoaren 14an, gaueko 1:00 eta Zatalarrañasen martxoaren 24an arratsaldeko 20:00 urubia entzun zuen.

Kabia ez du jarri, bikotea aurkitu ez duelakoa hurbiltzen da apeua egiteko eta bikotea aurkitzeko.

## IRADOKIZUNAK:

Ikerketa Otsailaren hasieran eta martxoaren bukaeran egitea ez du merezi. Otsailaren bukaeran edo martxoaren hasieran egitea hobea da. Agian beste herri batzuetan egitea ideia ona izango zen, Orontzen adibidez, urubiak entzuten dira.

